

Idatzi honen bidez jakitera ematen dizut 2024ko otsailaren 13an alkate jaunak dekretu hau ( 263 zk.) erabaki duela:

Udalbatzak 1993ko urriaren 28an hartutako erabaki baten bidez, Uraren eta Ingurumenaren Politiketarako Estatu Idazkaritzak 1993ko apirilaren 19an jakinarazitako baldintzak eta preskripzioak onartu ziren. Baldintza eta preskripzio horien bidez, itsaso-lehorreko jabari publikoko lurak okupatzeko emakida eman ahal izango zen, Munoa miradoretik Zarauzko hondartzara sartzeko bi eskailera eraikitzeko proiektuan jasotako obrak egiteko.

Emakidaren 30 urteko epea amaitzear dagoenez, bidezkoa da emakidaren luzapena eskatzea, Kostaldei buruzko 22/1998 Legea aldatzen duen 2/2013 Legean eta Itsasbazterren Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorrira.

Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzu Probintzialak Zarauzko Udalari jakinarazi dio zein den eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Espedientea eta Udal Zerbitzu Juridikoen txostena ikusita, eta arloko zinegotziak hala proposatuta, honako hau **ERABAKITZEN DUT**:

**Lehen.**- Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzu Probintzialari eskatzea CNC02/99/20/0192 erreferentzia duen emakida luza dezala itsaso-lehorreko jabari publikoa okupatzeko, hain zuzen, Munoa miradoretik Zarauzko hondartzara sartzeko eskailerak okupatu ahal izateko.

Okupazioak, Fulcrumek 1992ko urrian idatzitako "Munoako begiratokiaren azpian garajeak eraikitzeko eta eremua urbanizatzeko" proiektuan jasotako ezaugarriak mantentzen ditu; hain zuzen ere "behin betiko okupazioko zonako separatan" adierazitako ezaugarriei.

**Bigarrena.**- Eskaerarekin batera bidaltzea "Inak SL" ingeniariak idatzitako "Munoa Begiratokiaren Erreparazio Proiektua", 2022ko otsailekoa.

Erabakia behin betiko da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka ERREKURTSO hauek aurkeztu ahal izango dira:

- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA: aukerazkoa, erabakia hartu duen organoari, HILABETEKO epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtsua aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsua onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, BI HILABETEKO epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (123. eta 124. artikulua); eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

**Zarautzen, 2024ko otsailaren 15ean**  
**Idazkaria**

**Amaia Gorrotxategi Zubizarreta**

SERVICIO PROVINCIAL DE COSTAS GIPUZKOA

Tengo a bien poner en su conocimiento que el Sr. Alcalde, con fecha 13 de febrero de 2024 ha dictado el siguiente decreto (nº 263):

Mediante acuerdo plenario adoptado el 28 de octubre de 1993 se aprobaron las condiciones y prescripciones notificadas por la Secretaría de Estado para las políticas del Agua y el Medio Ambiente con fecha de 19 de abril de 1993, por las que podría otorgarse la concesión de ocupación de terrenos de dominio público marítimo-terrestre para la realización de las obras comprendidas en el proyecto de construcción de dos escaleras de acceso a la playa de Zarautz, desde el Mirador de la Munoa.

A punto de vencer el período de la concesión establecido en 30 años, procede solicitar una prórroga de la misma, conforme a lo dispuesto por la Ley 2/2013, de modificación de la Ley 22/1998, de Costas y por el Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas.

El Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa ha comunicado al Ayuntamiento la documentación a presentar junto con la solicitud.

Visto el expediente y el informe de los Servicios Jurídicos Municipales, y a propuesta del concejal del área, **RESUELVO:**

**Primero.-** Solicitar al Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa, de la Secretaría de Estado de Medio Ambiente, la prórroga de la concesión de referencia CNC02/99/20/0192, de ocupación de dominio público marítimo terrestre, en relación con la ocupación de las escaleras de acceso a la playa de Zarautz desde el mirador de la Munoa.

La ocupación mantiene las características señaladas en la “Separata Zona ocupación Definitiva” del “proyecto de construcción de garajes bajo el mirador de la Munoa y urbanización de la zona” redactado por Fulcrum en octubre de 1992.

**Segundo.-** Adjuntar a la solicitud el “Proyecto de reparación del mirador Munoa” redactado por la ingeniería “Inak S.L.”, de febrero de 2022.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes RECURSOS:

- RECURSO DE REPOSICIÓN, con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de UN MES, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,
- RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo, todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Legislación aplicable: artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

**Zarautz, 15 de febrero de 2024**  
**La Secretaria**

**Amaia Gorrotxategi Zubizarreta**

SERVICIO PROVINCIAL DE COSTAS GIPUZKOA

Kontsulta edo argibide gehiagorako: IDAZKARITZA (Ondarea, Ondare erantzukizuna, zigortzeko ahalmena tel. 943 00 51 00 ext. 1003 eta 1005)  
Para consultas o aclaraciones: SECRETARÍA (Patrimonio, responsabilidad patrimonial, Potestad sancionadora tel. 943 00 51 00 ext. 1003 y 1005)

